



3 OINATZ

**Ikasturteko lehen irteera urriaren 12an egingo du taldeak**

Ikasturteko lehen irteera Ezkio-Itsasoko Igartubeiti baserrira eta Ormaiztegioko Zumalakarregi museora egingo du Oinatz taldeak. Gipuzkoako historian atzera begirada bat izan nahi du txangoak eta Oinatz taldeko lagunen ustez, familia guztia-laguntzat da aproposa antolatutako irteera hortaz hauek parte hartzera animatu nahi dituzte.

4-5 MARATOIA

**Udaletxe berria ikusteko 32 bisita gidatu**

Euskararen Maratoian udaletxe berria txertatzea bururatu zitzaizen antolatzaileei. Horrela bisita gidatuak antolatzeko proposamena luzatu zieten udal gobernuko kideei. Bisita hauen nondik norakoen inguruan mintzatu dira Pablo Barrio alkatea eta Boris Nogales euskara batzorde burua. Guztira 30 minutuko 32 bisita antolatu dira eta hauetan parte hartzeko aurrez izeneman behar da.



# Greba orokorraren jarraipen zabala

Asteazkeneko greba deialdiak jarraipen zabala izan zuen herrian

Asteazkenekoa aurten deitutako bigarren greba orokor deialdia izan zen martxoaren 29koaren ondoren. Herrian goizean goizetik pikete informatiboak izan ziren, ezker abertzaleak antolatuta kontzentrazioa egin zen Okendon eta arratsaldean, 18:00etan manifestazioa burutu zen herriko kaleetan barrena.

ELA eta LAB euskal sindikatuak deitutako greba deialdiak jarraipen zabala izan zuen Lasarte-Orian.

Goizean goizetik izan ziren pikete informatiboak herriko kaleetan. Denda eta taberna gehienak itxita izan ziren bankuetez batzuetako bulegoak izan ezik.

Hala ere, Michelingo atarian grebarekin alderatuz, gutxi izan ziren atarian bildutako langileak eta lantegiko ELA eta LAB sindikatuak ordezkariek azaldu moduan, "langileen aldetik jarraipena kaxkarra izan da". Aurreko deialdian, martxoaren 29koan produkzioa gelditu zela gogoratu zuten.

**Eskolak hutsak**

Hala ere, herriko eskoletan jarraipena ia osoa izan zen. Sasoeta-Zumaburuz burbitu minimoak egon ziren baina ikasleen aldetik gutxi izan ziren eskolara gerturatu zirenak. Landaberrin berriz, DBHn ikaslerik ez zen azaldu



Okendotik abiatu zen manifestazioa arratsaldeko 18:00etan herriko kaleetan barrena.

eta irakasleen aldetik zerbitzu minimoak ere egon ziren. Garaikoetxean berriz, egoera oso antzekoa eta irakasleak bai, lau bat izan ziren baina ikasgelak hutsik.

**Elkartaratzeak**

Goizeko 10:00etan herriko ezker abertzaleak deitutako "banketeak errudun" lelopean elkartaratzea egin zen Okendon.

Horretaz gain, Okendon ere bildu ziren Lasarte-Oriako langabeen plataforma sortzea helburu duten herritarrak. Asteazkeneko jarri zuten hitzordua plataformaren helburuak finkatu eta aurrerantzean burutuko diren ekintzak gauzatzeko. Pankarta prestatu eta Lanbideko bulegoraino joan ziren manifestazioan protesta egitera. Honetan 80 bat lagun bildu ziren.



Goizean langabetuen plataformak protesta egin zuen Lanbide aurrean.

**Manifestazioa**

Arratsaldean 18:00etan Okendo plazatik abiatuko zen manifestazioa "Euskal

Herrian murrizketarik ez!" lelopean. Honetan ere asko izan ziren bildutako herritarrak.



**Txakurrentzako ileapaindegia**

**Txakur eta katuen denda**

**Deskontu interesgarriak dauzkagu!!**

**Udazkeneko arropa beraientzat ere**



Green enparantza 2 behea (Urbarteko parkearen parean) • Lasarte-Oria 20610  
Tel.: 943 576313 • info@canneslasarte.com • www.canneslasarte.com

Neure kabuz



Ane Labaka

Udazken koloretan

Edo udazken borroketan, zergatik ez. Izan ere, Hertzainak-en abestian esaten den bezala; gerrara ohitu zintezke baina gerra egon badago. Horregatik, asteazkeneko greba orokorreko ajarekin esnatu ginen osteguneari eta egunkaria gosalduraren genuen zenbat izan ginen, ziren eta zenbat kolpatu eta eramane zituzten jakiteko. Amorruek garrantzi zigan aurrean genuen kafea eta hasi berri zen egunak ere egutegian gorri koloreaz bazuela ahaztu zitzaigun une batez. Ahaztu zitzaigun zeinek bizi izan zuten bizi osoko greba orokor bat, bizi osoko borroka bat. Ahaztu zitzaigun gu jaio aurretik ere bazirela duintasunaren alde borrokatzen zutenak. Gudari egun bat gehiago, gudari dena eman eta gugatik ari ziren horiek ahazteko.

Egun batzuk lehenago Garen orri ilunetan irakurritako eskela etorri zitzaidan gogora. Lehenago paretaren batean zintzilik ikusitako aurpegi gazte bera, izar gorri eta guzti. Gezurrez makillatutako istorio bat, hogeita hamaika urteko historia laburtua. Duela hogeita lau urteko Donostia hartan.

Ez da erdi sorgina naizelako bakarrik, baina imaginari ditzaket gaurko ilunabarreko zortziak. Hileko azken ostiraleko kontzentran aurpegi ezagunak ikusten ditut. Miresten ditut ordua baino bi minutu lehenago agertzen diren horiek. Pankarta eusten duten esku zimurtu baina aldi berean tinkoak, esku horien jabearen txapela eta negar ugari egindako begiak ikzkatzen dituzten betaurreko beltzak. Ondoko emakumea ere bai, noski; hogeita lau urtez mantendutako irriparrak polita. Negarrak eta irriparrak ezkondua. Egia da, ez dute uzten maitatzen gauean.

Zorion agurrak



Gabriela eta Idoia

Zorionak eta ospatu egun handia. Familiaren partetik mila muxu bie!!!



Eneko

Zorionak!! Azkenean iritsi da zure eguna! Lau muxu pottolo amatxo, aita eta Aneren partetik.



Idoia

Zorionak marimatra-ka! Primeran pasa bihar Jalguneko lagun partetik.



Arai

Zorionak txapeldun!!! 7 muxu handi Karla, aita eta amatxoren partetik.



Libe

Zorionak eta muxu handi bat Xabi, Gaizka eta aita txoren partetik.



Unax eta Ane

Zorionak bikote!!! Muxu handi handi bat zuzentzat, amatxo eta aita txoren partez

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo www.txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Eskaintza immobiliarioak

- 116m<sup>2</sup>-ko aparteko pisua salgai, kultur etxearen parean. Guztiz berrituta dago. 3 gela, 2 komun, jantzigela, egongela eta sukalde ederra. Gela guztiak kalera ematen dute, Iñigo de Loyola kalera eta Geltoki kalera. PREZIO BERRIA. 639 738 413.

Lan-eskariak

- Emakume lanerako prest. Garbiketa lanetarako edota nagusien zaintzarako. Asteburuetan lan egiteko prest. Azucena 669 931 026
- Neska gazte euskalduna, prest dago zenbat lan burutzeko: etxeko lanak, ume zaintza, klase partikularrak,... Telf: 685799364
- Mutila eskaintzen da edozein lan egiteko, taberna edo jatetxe bateko sukaldean, margo-lanak egiteko... Harremanetarako, 648 637 732.
- Emakume eskaintzen da orduka etxeko lanak, garbiketa edo helduak, zein haurrak zaintzeko. Esperientzia eta paperak dauzka. Harremanetarako, 666 708 963.
- Emakume eskaintzen da interna moduan edo orduka etxeko lanak, garbiketa edo helduak zaintzeko. Esperientzia eta paperak dauzka. Harremanetarako, 619 803 199.
- Haurrak edo pertsona adinduek zaindu edo

etxeko lanak egiteko prest nago orduka edo interna moduan. Harremanetarako zenbakia, 610 887 845.

- Lan bila nabil. Etxeak garbitu, zaharrak edo haurrak zainduko nituzke orduka. Harremanetarako 943 404 015 edo 606 661 048 zenbakira deitu, Doris.
- Emakume eskaintzen da haurrak edo pertsona adinduek zaindu edo etxeko lanak egiteko orduka edo interna moduan lan egiteko. Harremanetarako, 608 131 170.

Bestelakoak

- DBH3 mailako Gizarte eta Natura gaietan laguntza klaseak emango dituen pertsona bat behar da. Harremanetarako 632 133 100 zenbakira deitu.
- Ingeles, gaztelera, matematika eta bestelako klase partikularrak. 693 601 222
- 13 urteko mutiko bati gitarra jotzen irakatsiko dion norbaiten bila gabiltz. Astean bi ordu eta arratsalde beharko luke. Urritik aurrera hasteko. 943 36 33 71 Ritxar.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotza

• Gorka Rodriguez Bujanda, irailaren 21ean.



Heriotzak

• Benedicto Martinez Gonzalez, irailaren 26an, 58 urte zituela.  
 • Cayetano Nuñez Fernandez, irailaren 26an, 86 urte zituela.  
 • Jose Velasco Botello, irailaren 24ean, 85 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

<b>Ostirala, 28</b> Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
<b>Larunbata, 29</b> Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
<b>Igandea, 30</b> Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
<b>Astelehena, 1</b> Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
<b>Asteartea, 2</b> De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
<b>Asteazkena, 3</b> Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
<b>Osteguna, 4</b> Gil, Kale Nagusia 24	943 361529

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero

Chucua, Kardaberaz 48  
Hernani, Tel.: 943 551793

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udalzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 376055
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzua	943 376179
KIUB	943 361605
Udal euskaltegia	943 361621
Munteri AEK	943 372863

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



**Lasarte-Oriako Udala**  
Euskara Batzordea



**EUSKO JAURLARITZA**  
KULTURA SAILA



GFako Kultura eta Euskara Departamendua

OINATZ

# Historia eta ohiturak ezagutzen

Familia guztiarentzako txangoa antolatu du Oinatzek Ezkio-Itsaso eta Ormaiztegiara

**Oinatz taldeak ikasturte hasierako irteera egingo du urriaren 12an. Ezkio-Itsasoko Igartubeiti baserria eta Ormaiztegiako Zumalakarregi museoa bisitatu dira oraingoa. Gipuzkoako historian atzera begirada bat izango da. Oinatz taldeko lagunen ustez, familia guztiarentzat aproposa den txangoa da hau.**

**E**uskal Herriko txokoak eta hauen historia edo kondairak ezagutzeko aproposak dira Oinatz taldeak antolatzen dituen txangoak. Urriaren 12an, Ezkio-Itsaso eta Ormaiztegiara egingo dute bidaia, Igartubeiti baserria eta Zumalakarregi museoa ezagutzera.

## Baserria eta dolarea

Ezkio-Itsasoko Euskal Herriko baserri interesgarrietako bat aurkitzen da, Igartubeiti baserria hain zuten.

XVI. mende erdialdean eraiki zuten, eta Euskal baserriaren Urrezko Aroaren adibide paregabea da.

Baserria XVII. mende hasieran, bizimodu eta lan berriei egokitzeko handitu eta aldatu egin zuten.

Hala ere, jatorrizko egu-



Ezkio-Itsasoko XVI. mende erdialdeko Igartubeiti baserria. Baserriko dolareak sistema berezi eta bakarra du.

rrerako egitura bikain mantendu zuten, baita barruan duen sagardo dolare handia ere.

Oinatzeko lagunek aipatu digutenez, "Euskal Herriko baserri zaharrenetarikoa da". Bereziki, dolareak sistema berezia eta bakarra duela azpimarratu dute, "dolarea martxan dagoenean, etxea bera negarrez dagoela dirudiela diote."

Hau egiaztatzeko aukera izango dute irteera honetan parte hartzen duten herritarrek. Izan ere, taldeak egingo duen bisita gidatuan, dolarea martxan ikusteko aukera izango dute.

## Karlistadak

Bazkal ondoren, Ormaiztegiara hurbilduko dira Zumalakarregi museoa ezagutzera.

Zumalakarregi Museoa Iriarte Erdikoa etxean dago kokatua, XVII. mendeko baserri tipikoa da eta bertan bizi izan zen Tomas Zumalakarregi jeneral karlista.

Hau aitzakia izanik, Euskal Herrian XIX. mendean izan ziren gizarte, kultura, ekonomia eta politikari lotutako gertaerak azaltzen dira museoan, besteak beste, garai hatako foruek zuten garrantzia, arazo dinastikoak edo gerra karlistak.

## Izen-ematea

Oinatz taldearen irteera honetan izena emateko Ttakun kultur elkartera hurbildu behar da.

Inskripzioa egiterakoan autobusaren prezioa ordainduko da, 10 euro.

Museoetako sarrerak egun bertan ordainduko dira. Igartubeiti baserria 3 euro eta Zumalakarregi museoa 2 euro.

Izen-emateko azken eguna urriaren 10a izango da. Honetaz gain, bakoitzak bere bazkaria eraman behar duela gogoratu dute Oinatz taldeko kideek.

BIYAK BAT

## Bidaia Galiziara

Biyak Bat elkarteak VIBO bidai agentziaren laguntzarekin Galiziara bidaia antolatu du, urriaren 14tik 20ra.

Bidai honetan, besteak beste, Santiago, Vigo, O Grove edo La Toja bisitatuko dituztela aipatu digute elkarte lagunek.

Bidai honetaz gozatzeke, elkarte bakoitzeko 325 euro ordaindu behar dituzte eta bakoitzek ez direnek, aldiz, 355 euro.

Izen-emateko edo informazio gehiago eskuratzeko elkarte bakoitzeko buruak hurbildu behar dira interesatuak, goizetan 10:30etik 12:30era.

KULTURA

## Alboka Abesbatzaren entsegu irekiak

Alboka Abesbatzak 2012-2013 ikasturtean bere 25. urteurrena ospatuko du eta hainbat ekintza berezi antolatu ditu. Lehena entsegu irekiak izango dira.

Abesbatzako kideek azaldu dutenez, abesbatza herritarrei ireki nahi zaie.

Honetarako, abesbatza kalera aterako da bere entsegu egitera. Lehenengo hitzordua urriaren 1ean 20:00etan izango da, Udaletxe berriko arkupeetan.

Saio honetan doinu ezagunak landuko dira, horietako batzuk Euskararen VIII. Maratoian abestuko dituztenak.

Alboka abesbatzako kideek herritarrek animatu nahi dituzte Okendo plazara hurbildu eta abestera.

## Stock azoka asteburuan Okendo plazan

**A**terpea Merkatarien Elkarteak, beste urte batez, V. Stock eta Saldoen azoka antolatu du asteburuan.

Denetarik erosteko aukera izango da Okendo plazan jarriko den karpan. Izan ere, hemezortzi dendek eskainiko baitituzte bere produktuak.

Aterpeko arduradunek jakitera eman digutenez, horietatik sei herrikoak dira: Urruzola merzeria, Iturbe zapata-denda, Abreu bazarra, Asmae zapata-denda, Mauxaren denda eta La Dolce Vita.

## Zozketak

Azokara sartzeko sarrera eskuratu beharko da. Honek euro bat balioko du eta honekin, bi zozketetan parte hartzeko aukera izango da: bi



lax Loidi-Barreneko frontoian egin zen pagotxen azoka berezi hau.

pertsonentzako afaria Martin Berasategi jatetxean eta bi pertsonentzako asteburu pasa bat.

Honetaz gain, gurasoak erostekak egiten ari diren bitartean, haurrentzako par-

kea edo puzgarriak egingo direla aipatu digute Aterpeko kideek.

Azoka larunbatean goizeko 10:00etatik 21:00etara eta igandearen 10:00etatik 20:00etara egingo da irekia.



## Hauteskundeetako 23 mahaia osatu ziren.-

Asteartean ez ohiko batzarra burutu zen urriaren 21an izango diren Eusko Legebiltzarreko hauteskundeetarako mahaia osatzeko. Guztira herrian 23 mahai osatzen dira eta zozketa honetan parte hartu zuten 14.137 hautesleek.

Guztira 207 kargu izendatu dira 14.137 hautesleren artean. Osaketa hau zozketa bidez burutzen da sistema informatiko bati esker eta hau jarraitzen izan dira alderdi guztietako udal ordezkariak. Zerrendak udalaren web orrian daude ikusgai.

Pablo Barrio eta Boris Nogales Alkatea eta Euskara batzorde burua

# “Euskara udaletxe barruan egotea nahi dugu”

■ Euskararen Maratoian zehar ordu erdiko 32 bisita gidatu egingo dira udaletxe berria ezagutzeko ■ Bisita gidatu bakoitzean gehienez 20 lagun onartuko dira

**Herritarren artean udaletxe berria barrutik nolako den ezagutzeko jakin-mina handia da. Kalean dagoen gaia izanik Euskararen Maratoiko antolatzaileek festa honetan nolabait udaletxea txertatzea bururatu zitzairen. Horrela bisita gidatuak antolatzeko proposamena luzatu zieten udal gobernuo kideei. Bisita hauen nondik norakoen inguruan mintzatu dira Pablo Barrio alkatea eta Boris Nogales euskara batzorde burua. Udaletxearen barruan hizkuntza nagusia euskara izan dadin lanean ari dira udal langileek eta aukera ezin hobea da Euskararen Maratoia udaletxeko atek euskarari zabaltzeko.**



Pablo Barrio alkatea eta Boris Nogales Euskara batzorde burua Udaletxera bisitak hasiko diren sarrera nagusiaren aurrean.

Azkenean udaletxe berria nolako den ikusi ahal izango dute herritarrek. Euren jakin-minarekin bukatzeko aukera izango dute. Euskararen Maratoia dela eta atek zabalduko ditu lehen aldiz. 32 bisita gidatu antolatuta dira urriaren 20 eta 21eko asteburuan eta dagoeneko hauetan parte hartzeko izena eman daiteke [www.euskararenmaratoia.com](http://www.euskararenmaratoia.com) helbidetan, Ttakuneko egoitzan edota udaletxeko euskara-zerbitzuan 943-376184. Bisita gidatu hauen inguruan hitz egin dute Pablo Barrio alkatea eta Boris Nogales euskara batzorde buruak.

eta bisita hauekin nolabait joera hau aldatzea bilatzen da. Bisita hauekin nolabait udaletxeak euskarari atek zabaltzen dizkiola adierazi nahi da. Lehen hitza beti euskaraz.

**Zergatik Maratoian erakutsi?**

Pablo: Garbi dago Maratoia ekintza berezia dela eta halako ekitaldi berezi batek justifikatzen duela halako ekimen bat burutzea. Bestela ez litzateke egingo. Honekin esan nahi dut hau ez dela inaugurazio bat, bisita gidatuak dira soilik orain udaletxea dagoen bezala ikusteko, espazioak erakusteko bisitak dira. Barruan oraindik ez dago ezer.

**Nolako bisitak izango dira?**

Boris Nogales: Bisitak motzak izango dira 30 minutukoak eta ezingo da dena bere osotasunean ikusi. Beheko solairua, lehenengo eta bigarrena erakutsiko dira. Azken honetan langileen bulegoak kokatuko liriteke.

Pablo: Bisita bera ataritik hasiko da, lehenengo gelaxto batean bideo motz bat ikusi ahal izango da eta bertan erakina plano eta argazki batzuk erakutsiko dira. 30 minutuko 32 bisita dira eta 20 lagun onartuko dira gehienez.

Pablo: Bisitak hamasei urteko gorakoentzat daude pentsatuta beraz ez da hauetan umetik onartuko. Horretaz gain gogoratu bisita hauetan parte hartzeko aurretik izena eman beharko dela, [www.euskararenmaratoia.com](http://www.euskararenmaratoia.com) helbidetan.

**Maratoiaeren antolakuntzatik iritsi zitzaigun udaletxea erakusteko bisita gidatuen ekintza proposamena eta ondo iruditu zitzaigun modu honetan euskararen festarekin bat egitea.**

dean, Ttakunen edota udaletxeko euskara-zerbitzuan. Egunean bertan ez da izena emanda ez dauden pertsonak bisitetan onartuko.

**Herritarren artean udaletxearen inguruan jakin-mina egon daitekeela uste al duzue?**

Pablo: Bai esan bezala badakigu, jendeak kaletik galdetzen zaitu... jakin-min hori badago eta normala da. Askotan hitz egingo da erakin handi hau egitearen kosteaz, altzariak jartzeko egin beharko den gastuaz etab. Okendo herriko erdi gunea da gainera eta denbora aske da udaletxea bertan prest bezala ikusten dutela herritarrek.

Boris: Bisita hauetan nolabait arkitektoaren buruan zeuden irizpideak azalduko dira, hau da, zergatik eta nola egin diren espazioak. Udaletxea

dagoen bezala erakutsiko da, hau da, hutsa eta hainbeste denboran itxita egoteagatik pilatutako zinkierari.

**Euskaraz egingo dira bisita guztiak...**

Pablo: Hori da bai. Euskararen Maratoiaeren baitako ekintza izaki euskaraz egingo dira bisita gidatu guztiak. Jendea euskararen inguruan bildu nahi da jaialdi honekin.

Horretaz gain, euskaraz ez jakin eta jakin-mina duten herritarrek ere parte har dezakete bisita hauetan. Bistak irekia dira eta erdaldunek nahikoa badute erakina ikustearik ez zaie eragozpenik jarriko. Hori bai bistak euskara hutsen izango dira.

**Udaletxea horrela ikusteko beste aukerarik izango al da? Pablo: Momentuz udaletxea**

ikusteko aukera bakarra hau izango da. Ez dugu inaugurazioan pentsatu baina ez dut uste halakorik egingo dugunik. Herritarrentzat aukera bikaina da Maratoian izango dena.

**Gainera udaletxe euskara lehen hizkuntza izateko da abian jartzeko ari zareten asmoaren idela nagusia, ezta? Pablo: Bai hori da. Aipatu bezala udalaren barruan honetarako prozesu bat martxan jarri guren aurreko ikasturtean eta aurtenean hasiako lanak eta harenan helburu finkatu dira udal langilearen artean euskararen normalizaziorako bidea egin dadin.**

Boris: Horrela udalaren barruko lanak eta harenan euskaraz izatean datza azken helburua.



**Bisita guztiak gidatuak eta euskaraz egingo dira. Parte hartzeko izena aurrez eman behar da [www.euskararenmaratoia.com](http://www.euskararenmaratoia.com) helbidetan, Ttakunen edo Udaletxeko euskara zerbitzuan**

**Helburu hau lortzeko lan berezia egiten ari zarete departamentu guzietan...**

Boris: Bai, Tavel Kluba deitu diogu barne prozesu honi. Euskarari bidegorria irekitzea da lantzen ari garena. Honekin adibidez gauzatu nahi duguna da Pablok esan bezala, barruko lana egiteko hizkuntza euskara izatea.

Txostenak elebitan egin behar direnean noski hala egingo dira eta gaztelera hutsen zerbait egiteko beharra bada ere egingo da baina printzipioz barne txostenak, harremanak etab. euskaraz egiteko pausua ematea da burutzen ari garen prozesuaren helburua.

Adibidez, gizarte zerbitzuetako teknikari batek txosten bat bidali behar badio beste departamentu bateko teknikariari, jakinda biak euskaldunak direla, naturalena lan hau euskaraz egitea litzateke. Lehen jorua zegoen asko gaztelera egiteko, defektuz, eta hau da aldatu nahi dena.

Horretarako langile guztiak parte hartzen ari dira prozesuan.

**Zein baliabide lantzen ari zarete?**

Boris: Lan hau modu errazenean nola egin ari gara langileekin aztertzen, baliabideak topatzen, udalaren intranetean hiztegiak jarri dira eskura eta agian txosten batzuk burutzeko plantilla edo txantiloak erabiliko dira.

Pablo: Txosten tekniko "mardul" horiek euskaraz egiteari beldurra galdu behar diote langileek eta horretarako tresnak bilatuko dira.

**Eta herritarrekin?**

Udalaren barne funtzionaria berrak erabiltzeko dena. Esan bezala udaletxe berri honetara tramite ezberdinetan egitera etortzen diren herritar euskaldunek euskaraz hitz egingo nahi dugu. Lehen hitza beti euskaraz izatea. Idatziz ere kekak edo dena

delakoak euskaraz egiteko beldurra galtzea nahi dugu.

**Zer da zuzentzat Euskararen Maratoia?**

Boris: Gogoratzen naiz txiki-txiki asteburu batean euskararekiko zerbait berezia egiten zela, festa bat. Lehenengo maratoia egin zenean lau urte

nituen. Argazkiak ditut eskolako lagunekin Okendo Jon Braun dantzatzen. Urteak aurrera egin ahal festa bilakatu zen Maratoia baina aldirrikapen kutsu handiarekin.

Pablo: Lehenengo Maratoia egin zenetik gauzak zehaztasun asko aldatu dira. Lehendabizikoak eronka kutsua izan zuten, hau da, baietz egin 40 ordu jarraian euskaraz, eta hori dut buruan. Lehenengo maratoi hura gainditu eta hori baino gehiago egiteko gai garelako demostratu da edizio batetik bestera. Maratoia geroz eta handiagoa da, ekintzak asko dira eta laguntzaile eta ondo pasatzeko prest dauden herritar pila biltzen ditu. Ziur nago aurtengoa ere gogoangarria izango dela.

**Nola parte hartuko duzue?**  
Pablo: Ba pena handia daukat izan ere, ezingo dut nahi bezala eta nahi beste parte hartu. Urriko asteburu horretan burutuko dira hauteskundeak eta arrazoi hau arteko larunbata hausnarketa-eguna izango da.

Horrela izanda kargu politikoek gure jarduna nolabait etetea behartuta gaude eta gure agerrialdik baldintzatuta

**Zer esango zeniekete herritarrei ekintza honetan parte har dezaten? eta Maratoian?**

Lehen esan bezala Udaletxe berria bere osotasunean ikusteko printzipioz aukera bakarra izango da Maratoian zehar izango diren bistak. Beraz jakin-mina duten herritarrek dagoeneko izena ematea animatuko nituzke.

Bestalde, Euskararen Maratoia lau urtetik behin egiten da eta esan euskararekiko mereri duela festa honetan ahalik eta herritar gehien biltzea. Animatu, parte hartu eta disfrutatut! Familia, lagunekin euskaraz izango da Euskararen zortzigarren Maratoia!



**Euskarari bidegorria zabaldu**

Udalean burutzen ari diren prozesuaren azken helburua eta jasotzen ari diren proposamenen zentzua, eguneroko praktikan euskarari bidegorria irekitzea dela diote. Hau da, euskara erabili nahi dute udaletxeko eginkizunetan, eta gaztelania ere erabiliko dute, baina komunikazio-egoerak horren beharra duenean soilik. "Azken helburua dena euskaraz egitea litzateke. Komunikazioa ziurtatzeko gaztelaniaren beharra ez dagoenean ahoz nahiz idatziz behintzat". Hori ditzen edota bidegorria.

Euskararen bidegorri hori, ordea, oraindik ere estua dela aitzortzen dute. "Lan asko dago egiteko baina barrutik gogoz ari gara hau burutzen". Horrela alkatea zuzenbaitzordeburuek herritar guztiak gon-



bidatu nahi dituzte udalera euskaraz zuzen daitezen, ahoz zein idatziz, informazioa eskatu nahi dutenean, kexa bat azaltzerako garaian edo zerbitzu, ikastaro bat egiteko garaian.

Herritarrek animatu nahi dituzte udalarekin harreman-

tan jartzekoan askotan administrazioarekiko dugu irudi eraldatu horrek jartzen dizkigun mugak gainditzea eta lehen hitza eta bigarrena euskaraz egitea. "Hori baita, bidegorria denon artean zabaltzeko biderik eragingarriena".



## LABURRAK.-

## Buruntzalde IKT-ren estilo ikastaroa

Buruntzaldea IKT igeriketa taldeak jakitera eman du, iaz bezala, urriaren 6tik aurrera estiloen irakaskuntzarako saio berezi batzuk antolatu dituela.

Saio hauek larunbatetan izango dira, 11:45ak eta 12:45ak bitartean eta haurrei igeriketako oinarriak eta estiloak irakatsiko zaizkie.

Kirol taldeko antolatzaileek azaldu dutenez, 2003 urtea baino lehen jaiotako haurrei zuzendua dago atal hau, "igeriketa egin edo probatu nahi dutenei eta taldean egoteko oraindik ahalmen tekniko nahikoak ez dituztenei".

Hilabeteko kuota 15 eurotako izango da. Buruntzaldea IKT-ko arduradunek aipatu dutenez, interesatuak dauden herritarrek izen-ematea egin beharko dute plazak mugatuak izango baitira.

Inskripzioa egin edo informazio gehiago eskuratzeko asteleheneretik ostiralera bitartean Lasarte-Oriako kiroldegiko igerilekukit pasa eta Borjagatik galdetu beharko da, arratsaldeko 17:30etik 21:00etara.

## Haurrentzako igeriketa ikastaroak

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak 2007-2009. urteetan jaiotako haurrentzako igeriketa ikastaroak antolatu ditu hiruhilabete honetan.

2006 eta 2007 urteko haurrek hasiera mailako ikastaroan parte hartzeko aukera dute. Hiru eta lau urteko haurrentzat, berriz, hasiera eta jarraipen saioak izango dira.

Saioak astean bi edo hiru egunetan eskainiko dira, asteartean, ostegunetan eta txandakako ostiraletan. Ordutegiari dagokionez, 2006 eta 2007 urteko haurrak 18:40ean hasiko dira lanean; 2008 eta 2009 urtean jaiotakoekin hasiera maila 18:05ean eta jarraipen mailakoak 17:30ean izango dira.

2006 eta 2007 urteko haurrentzako ikastaroak 70,98 euroko balioa du kiroldegiko bakideentzat, bazkide ez direnek aldiz, 127,82 euro ordaindu behar dituzte. 2008 eta 2009 urteko haurren kasuan, bazkideek 82,88 euro ordaindu behar dituzte eta bazkide ez direnek 149,24 euro.

Ikastaro hauetan parte hartzeko kiroldegiko bulegoan izena eman behar da. Haurrak inskribatzeko azken eguna gaur da.

## OHARRAK.-

## Errugby eskolako entrenamenduak

Beltzak Ostadar Jalai Errugby eskolako antolatzaileek jakitera eman dutenez, kadete, infantil federatua eta eskolarteko infantilak gaur arratsaldeko 18:00etan Michelingo kirol gunean dute hitzordua.

Zarautzeko zelaira entrenatzera joango dira eta entrenatzaileek botak eramateko gogora arazten diete jokalariei.

Era berean, igandean irailaren 30a, benjamin eta alebinek entrenamendua izango dute, 9:00etatik aurrera, Michelingo kirol guneko atletismo pistan.

## FUTBOLA.-

## Ostadar eta Texas Lasartearra aurrez aurre Erregionalean

Partida igandean goizeko 10:00etan jokatu da Zubietan

**Asteburu honetan, Erreala eta Athletic-en arteko derbia da. Baina Lasarte-Orian ere derbia izango da. Ostadar eta Texas Lasartearra taldeko I. Erregionalean taldeak igande honetan izango dira Zubietan aurrez aurre. Denboraldiko lehen partidari biek garaipena lortu zuten eta partida honetan gogoz lan egingo dute puntuak eskuratzeko.**



Ostadar eta Texas Lasartearra taldeko I. Erregionaleko mutilek derbia jokatu dute igandean.

## Nerea EIZAGIRRE

Ostadar eta Texas Lasartearren arteko lehen derbia jokatu da igandean, 10:00etatik aurrera, Zubietan. Bi taldeetako entrenatzaileekin hitz egin dugu denboraldi hasierari buruz. Izan ere, bi taldeek ederki hasi dute denboraldia garaipenarekin.

## Lehen partidari garaipena

Ostadarrek 1 eta 2 irabazi zion Euskaldunari. Ostadarreko entrenatzaileak aipatu digunez, 1-0 galtzen joan zen eta 10 jokalarirekin gelditu zen I. erregionalean. "Oso ondo bukatu genuen, buelta eman genion emaitzari," aipatu digu.

Izan ere, Beldarrain entrenatzailearen hitzetan, "taldea nahiko ondo ibili zen. Jendea gogo askorekin dago,

indarra, abiadura eta intensitatea asko daukagu".

Texas Lasartearra-k berriz, 4-1 irabazi zion Segurari.

Koldo Ageitosek ondo ikusi zuen bere taldea. "Lan handia egin zuten. Asko egin zuten korrika. Primerako jarraera izan zuten eta emaitza paregabea izan zen. Motibazio aldetik ongi etorri zitzaion taldeari".

## Derbia

Gauzak honela, igandean bi taldeak aurrez aurre izango dira urteko lehen derbian.

Partida polita eta parekatuta izango dela esan digu Josean Beldarrainek. "Bi taldeak berdintsuak gara eta biok gaude martxa hartzen. Gogo askorekin daude mutilak."

Koldo Ageitosek aipatu digunez partida zaila izango

da, "jendea gogo askorekin doa eta azkenean, geldirik geratzen dira. Gure futbola egiten saiatuko gara, baloia atzetik jokatzen".

## Taldeen helburua

Entrenatzaileek azaldu digutenez, helburu desberdinak dituzte.

Ostadarreko I. Erregionalek "harrobia indartu eta ahal baldin bada lehengo urteko hobetzea" du helburu.

Texas Lasartearra taldeko helburua lehen fasean hiru lehenen artean sartzea dela azpimarratu du Koldo Ageitosek. "Zaila izango da. Asmoa bat baita, baina lortzea beste gauza bat. Borrokatuko dugu hori lortzeko. Horrela ez bada, azken urteetan kopa izan da gure lehiaketa eta ilusio jokatu dugu".

## KIROL AGENDA.-

## FUTBOLA

Ostirala 28

Urnieta, 18:30ean

Urnieta-Texas Lasartearra I. Kadetea

Larunbata 29

Arizti Handi, Lazkao, 10:00etan

Lazkao-Ostadar

Infantilen Ohorezko maila

Zubieta, Hernani, 16:00etan

Hernani-Ostadar

Erregionaleko Ohorezko maila

Igandea 30

Harane, Usurbil, 09:00etan

Ostadar-Usurbil I. Kadetea

Zubieta, 10:00tan

Ostadar-Texas Lasartearra

I. Erregionalea

Zubieta, 10:00tan

Ostadar-Sporting de Herrera

I. Jubenila

Zubieta, 10:30ean

Real Sociedad-Ostadar

Kadeteen Ohorezko maila, Euskal Liga

Harane, Usurbil, 10:30ean

Ostadar-Lagun Onak

Jubenilen Ohorezko maila

Harane, Usurbil, 12:30ean

Ostadar-Urola

Emakumezkoen maila

## ARETO-FUTBOLA

Larunbata 29

Kiroldegia, 17:00etan

Aldaz H.K.-Bilbo

Nazional III. maila

Zubiaurre kiroldegia, Azkoitia, 15:15ean

Zurt taberna-ISU Leihoak

Gipuzkoako Liga

## PILOTA

Ostirala 28

Ederrena, Urretxu, 19:30ean

Goierri-Intza I Eskuz banaka, jubenila

Larunbata 29

Biriatu, 11:00etan

Iparalde-Intza Eskuz banaka, II. jubenila

Michelingo pilotalekua, 16:00etan

Intza2-Aurrera Saiaz

Eskuz banaka, jubenila

Michelingo pilotalekua, 16:00etan

Intza-Goierri

Eskuz banaka, I. jubenila

Michelingo pilotalekua, 16:00etan

Intza-Eskoriatza Eskuz banaka, II. nagusia

## ATLETISMOA

Igandea 30

Ordizia, 11:00etan

Herriko hainbat atletek XII. Josexto

Imaz Oroimenezkoan parte hartuko

dute.

## TXIRRINDULARITZA

Larunbata 29

Urretxu, 16:00etan

Buruntzapi eskolako eta herriko

junior mailako txirrindulariak

Udazkeneko Kriteriumean parte

hartuko dute.

Igandea 30

Biayk Bat, 08:30ean

Ostadar SKT-ko zikloturistek

irteera dute Zaldibiko Arkaka

iberrera.

## ERRUGBYA

Larunbata 29

Landare, Hernani, 10:00etan

Beltzak Ostadar Jalai Errugby

eskolako eskolarteko infantilek

topaketa dute.

Ayete, Donostia, 10:00etan

Beltzak Ostadar Jalai Errugby

eskolako alebinek topaketa dute.

Zarautz, 12:30ean

Beltzak Ostadar Jalai-Durango RT

Kadeteak

## Agenda

Larunbata 29-Igandea 30, Okendo plaza



### Pagotxen azoka

Beste urte batez, Lasarte-Oriako Aterpea Merkatarien elkarteak Udaren laguntzaz, V. Stock eta Saldoen Azoka antolatuko du. Arropa, bitxiak... dendatan saldu ez dituzten produktuak prezio onean eskuratzeko aukera izango da asteburu honetan. Hemezortzi denda izango dira Okendo plazan jarriko den karpina. Sarrera, euro bat.

emanaldia: Uxue Alberdi, Julio Soto, Andoni Otamendi, Alaia Martin. Gai-jartzailea: Amaia Agirre. Iñstorra elkar-teak antolatuta.

### Usurbil

#### Antzerkia

**SUTEGI KULTUR ETXEA**  
**Ostirala 28, 20:15ean**

IV. Topa Eszenikaren barruan, "Ispilua" antzezlan eskainiko du Aldatzen Laguntzen Antzerki Taldeak.

#### HAINBAT KOKALEKU

**Larunbata 29, egun osoa**

IV. Topa Eszenika ospatuko da. Idazketa eta klown tailerrak. Emanaldiak ere izango dira: "Orsai" kale antzezlan eta "Gure bide galduak" antzezlan. Tailerretan izena emateko: txerriki@gmail.com. Txerriki Antzerki Taldeak antolatuta.

### Hernani

#### Azoka

**ERDIALDEA**  
**Ostirala 29**

Bigarren eskuko txirringen azoka berezia antolatu du Hernaniko Udalak. Mugikortasun astearen baitako ekintza da.

#### Erakusketa

**BITERI KULTUR ETXEA**  
**Irailaren 28tik-Urriaren 11era**

Argazki Rally digitalaren erakusketa ikusgai izango da.

### Lasarte-Oria

#### Erakusketa

**JALGI KAFE-ANTZOKIA**  
**Iraila osoa**

Jon Galdos artista irundarraren Amalura margoen erakusketa eta hainbat olerki ikusgai dira.

#### Bertsolaritza

**ARRIESKALLETA ELKARTEA**  
**Ostirala 5, 21:00etan**

'Hitzarekin jolasean musikaren kolore-

tan" bertso afaria antolatu dute Arrieskalleta elkarteak, Ttakun kultur elkarteak eta Lasarte-Oriako Bertso eskolak. Jon Maia eta Uxue Alberdi bertsolariak eta Eñaut Elorrieta musikaria izango dira honetan. Afariko tiketak Jalgi tabernan daude salgai, 25 eurotan.

#### Bestelakoa

**ISLA PLAZA**  
**Astelehena 1, 17:00etan**

Zaharren omenaldiko ospakizunen barruan, toka, igel eta pote txapelketak. Izen-ematea, Biyak Bat elkartearen.

#### BIYAK BAT EGOITZA

**Astelehena 1, 17:00etan**

Zaharren omenaldiko ospakizunen barruan, mus txapelketa.

### Urnieta

#### Jaiak

**ERDIALDEA**  
**Osteguna 27-Igandea 30**

Urnietarrek Sanmielak ospatuko dituzte.

**JAKUTEGI PLAZA**

**Igandea 30, 16:00etan**

Sanmiel jaien barruan, bertsolarien

## Herritarren txokoa

### Eskutitza

#### Garai gogorak San Marko Mankomunitatean

Garai gogorak bizi ditugu. Inori ez zaizkio ezezagunak egiten bizi dugun krisiaren ondorioak. Lehen pertsona jasaten ez duenak, gertu izango ditu krisiaren ondorio latzak pairatzen dituzten senide eta lagunak. Gehienontzat ezaguna da bizi dugun krisi ekonomikoaren jatorria. Bankuek espekulatu zuten eta irabaziak poltsikoratu. Orain, banku espekulatuzaileek sortu zuten zuloa estaltzeko, guztiok ordain dezagun dekretuak eta murrizketak datoz bata bestearen atzetik. Hori noski, ezinezkoa izango litzateke bankarien zerbitzura txotxongilo lanean ari den klase politikoko baten laguntzarik gabe.

Tamalez, zenbait politikariren jokabide lotsagarri hori ez da horretara mugatzen. Enpresa handien morroi zintzoa izateak bere saria izaten du, eta Gipuzkoan ere bada handi-mandi hauei kartara jaten ematen aritzen denik. Errauste planta da bandejan eskainitako kutixi estimatu horietako bat. Berdin da, papera, plastikoa ala ongarria izan, den dena erraustu eta zabor toxiko bihurtzea. Berdin da

milaka herritarren osasuna kaltetzea. Horren kostea? 400.000.000 euro + interesak + unean uneko Bidegi efektua. "Asko dela? Berdin da, laguntxo entzat da eta herritar inozoek ordainduko dute. Non dago arazoa? Prentsa alde edukita, herritarrei beharrezkoa dela sinestazaziko diegu eta kitto!" pentsatuko dute.

Baina hasieran esan dugun bezala, ez dira hauek txantxetarako garaia. Eskubide mozketak, soldata jaitzierak, kaleratzeak eguneroko bihurtu zaizkigu. Zoriak nahi izan du, injustizian oinarritutako eredu hori salatzen sindikatuek deitutako greba egunean, Gipuzkoako herritar eta langileak lana utzi eta kalera irtegan diren egunean hain zuzen, San Marko mankomunitatean herritarren xoxak enpresa handien zerbitzura jartzen dituen eredu horretarako urrats berri bat egiteko batzarra egitea. Ezusteko handirik gertatu ezean, asteazkenean, San Marko mankomunitatearen zuzendaritzan aldaketa gertatu da. Lehendakariari berriak, Denis Itxasok, bere asmoen berri aurreratu du

dagoeneko. Eta zein dira iragarritako bere helburuak? Gaikako bilketa hobetzea? Ez! Hondakinen sorreran murrizketa eragitea? Ez! Herritarren osasuna tratamendu toxiko, garesti eta kutsakorretatik babestea? Ez! Denis Itxasok, zalaparta handiz gainera, bere ahalegina zertara bideratuko duen iragarri du. Gaikako bilketa maila hobetzeko saioak oztopatzen batetik. Zer besterik da ba emaitza onak lortzen dituen bilketa sistema bat oztopatzea, emaitza berdintsuak eskainiko dituen alternatibarik proposatu gabe? Iragarri duen beste helburua errauste plantaren proiektua berbitzen ahalegintzea da. Zer zentzu dauka hori egiteak ezarri nahi izan den leku guztietan herritarrek kontra azaldu direnean? Zer zentzu dauka errausketa berpiztu nahi izateak horrek 200.000.000 euro gehiagoko zama ekarriko badu gipuzkoarrok jasaten ditugun aurrekontu publikoetan? Gutxi batzuk guztion kontura bapoz bizitzeko eraki duten eredu honen aldeko eskirol lana egitera doaz, Denis eta bere babesleak Greba egunean.

GZZeko kideok oso bestelako norazkoan joateko garaia direla erizten diogu. Europako Batzordearen materialen efizientziarako bide orriak, Europako Parlamentuko maiatzeko ebazpenak eta krisi honi irtenbidea emateko eraiki behar den gizarte eredu oso bestelako norabidea erakusten digute. Materialen kudeaketa arrazionalizatzeko garaia da, iraunkortasuna gure ekonomian txertatzeko garaia. XXI mendean ezin dugu baliabideak eta dirua etengabe xahutzen, eta era berean gure osasuna eta ingurumena kaltetzen segi.

Gipuzkoako hiri hondakinak kudeatzeko plan eguneratuak bide onetik jotzen du. Ez dago atzera egiteko inolako arrazoirik. Aurrekontua erdira gutxitu eta tratamendu toxikoak baztertu dira. Ez dira hauek enpresa handiei 200.000.000 euro oparitzeko garaia. Herritarrok behar ditugu. Gipuzkoako Zero zabor lurralde izateko bidean aurrera segitu behar du.

Gipuzkoa Zero Zabor



# aterpea

lasarte/oria

## Sekulako mauka Stock azokan

Irailaren 29 eta 30ean **Okendo plazan**  
Goizeko 10:00etatik irekita

Sarrera:  
euro 1



Lasarte-Oriako Udala



Juan XXIII., 10 • LASARTE-ORIA  
Tel.: 943 362353  
www.merceriaaritya.com



Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA  
Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521



Uzurra plaza 2, behe • Tel./Faxa: 943 360591  
LASARTE-ORIA

Maite **B**ETELU

- Gestoria
- Aholkularitza
- Inmobiliariako zerbitzuak
- Aseguruak
- Etxebizitza administrazioa

Aralar plaza 4 eta 6, behe • LASARTE-ORIA  
Tel.: 943 364886 • Faxa: 943 372117

**Bideo Lagunak**



Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria  
Tel.: 943 373134  
jose@bideolagunak.com  
www.bideolagunak.com

**ekain**  
liburudenda

Pablo Mutiozabal, 2  
20160 Lasarte Oria  
Tel./Faxa: 943 36 62 28  
www.ekain.net

**MAUXA RENA  
DENDA**

Lentzeria  
Baruko arropa  
Pijamak

Pablo Mutiozabal, 1  
20160 Lasarte Oria  
Tel.: 943 100275



**Goxogi**

Geltoki kalea, 6  
Telefona: 370848  
LASARTE-ORIA



**Iturbe**  
OINETAKOAK

Nagusia 34  
20160 Lasarte-Oria  
Tel.: 943 365626



**IZARRA  
BITXITEGIA**

Geltoki kalea 19 • Tel.: 943 371384  
Juan XXIII.a plaza, z/g • Tel.: 943 364945  
www.izarrabitxitegia.com



Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA  
Tel.: 943 372668 Faxa: 943 370737  
patxilarranaga@telefonica.net  
www.patxilarranaga.com

**LIZARRI OPTIKA**

Hipodromo etorbidea 8  
(Anbulatorio zaharraren aurrean)  
Tel.: 943 366482  
LASARTE-ORIA

PERFUMERIA Ana Díez

**Maiane**

Uistin 4  
20.160 Lasarte-Oria  
Tif. Fax.: 943 37 08 46  
652 77 11 01



Natur. Paratogui.

Loidi Kalea, 4  
20160 Lasarte-Oria  
Tel.: 943 366 471

**MAYA**

Lentzeria  
kortse-denda

Hipodromo etorbidea 8  
LASARTE-ORIA  
Tel.: 943 363665

**NOGUES**  
Gizonentzako moda

Nagusia 21 • Lasarte-Oria  
Tel.: 943 361403

**Okela**  
HARATEGIA

Hipodromo etorbidea 8 • Lasarte-Oria

Tel.: 943 361885  
Kale Nagusia 41 • Lasarte-Oria  
Tel.: 943 363912

MERTZERIA  
ETXEKO LENTZERIA ETA ARROPA  
UMEENTZAKO ARROPA

**Olmis**

Nagusia 46  
20160 Lasarte-Oria  
Tel.: 943 370950

**ORMAZABAL  
LOBADENDA**

Nagusia 33 • Tel.: 943 361535  
www.ormazaballoradenda.com

**ABREU**

Geltoki 2 • LASARTE-ORIA  
Idiazabal kalea 32 • URNIETA  
Tel.: 943 365846

**parafarmazia**

Pablo Mutiozabal 4  
Lasarte - Oria  
Tel.: 943 369679

**BURDINDENDA  
SYKOA**

Nagusia 35 • Lasarte-Oria  
Tel.: 943 361195

**VENTANAS  
SAN MIGUEL**

Zirkuitu ibilbidea 10  
(gasolindegia atzean)  
Tel.: 943 362457 • LASARTE-ORIA

**ZUMABURU  
LIBURUDENDA**

Nagusia Kalea 46 behe  
20160 Lasarte Oria  
Tel.: 943 371386

**Carrefour  
express**

Juan XXIII plaza 2 behe  
Tel.: 943 364647

**aldaz**  
horts klinika · clinica dental  
Deitu gure zerbitzua ezagutzeko

943 366 377  
Ola kalea, 10 San Bartolome, 22  
Lasarte-Oria 20160 Elgoibar 20870  
www.dentalaldaz.com

**URRUZOLA**  
MERTZERIA - DROGERIA

Kale Nagusia 42  
Tel.: 943 362979